

**2021EKO URRIAREN 26AN EGINDAKO  
OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK**

**Alkate-Lehendakaria**

Gorka Murua Macuso

**Zinegotziak**

Noelia Lataburu Ortiz  
Mikel Iturbe Saizar  
Olaia Nieto Legarra  
Leticia Aristi Oria  
Ana Jesus Leunda Gurrutxaga  
Jose Ramón Epelde Irizar  
María Cristina Santos San Sebastian  
Marta Castrillo Iturralde

**Idazkaria:** Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 19:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Iruran, 2021eko urriaren 26an arratsaldeko 19:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Irurako Udaleko OHIKO Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bilera, publikoari itxita izango da, nahiz eta edozein herritarrek eskubidea izan bileraren akta eta audio grabazio eskuratzeko.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Gorka Murua Macuso izan da Batzarburua.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA:**

**\* 2021/09/09KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

**Gorka Alkateak:** Plenoari hasiera emanaz, adierazten du aldaketa eskatu zela, ez-ohiko bilkuran ez zutela galde erregurik egingo eta hori jasotzea nahi zen, Ana Leunda EAJko zinegotziak adierazten du,hitzez-hitz:

**Ana Leunda And.:** “bueno, hainbeste protagonismo ez nuke nahi baino berriro ere, nik ez nuen hori esan, nik esan nun, horrela utzi beharko dugu, baino nik esan nuen ez ohiko bilkura da eta ez luke egon behar galde-erregurik ez?, esan nun”

**Idazkariak:** Zer nahi duzu hitzez-hitz jasotzea? Galdetzen dizut? Nire ustez, hori ulertzen da hau irakurrita.

**Ana zinegotziak:** Aber, nik ez nun esan ez dut egingo galderik ez delako hemen tokatzen, baino bueno hainbesteko, hirugarrengo plenon gauz berdinarekin ba, utzi dezagun hoola baino...

**Idazkariak:** bueno, hitzez hitz jasoko degu eta lixto! Nire aldetik ez dago arazorik.

**Ana Zinegotziak:** grabatuta dago eta ordun...

**Idazkariak:** Bai eta hala argitaratze da baino. Jasoko degu eta hurrengo plenora pasako degu....

**Ana Zinegotziak:** bakarrik hori komentatu nahi nun...”

**Idazkariak:** Ez dago arazorik.

**\* 2021/09/28KO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA.**

**Gorka Alkateak:** Orduan irailak 28koan ingurun onartzen da akta dagoen bezela?

**Ana Leunda And.:** "berdin jartzen du hor ere"

**Gorka Alkateak:** Berdin, aurreko puntuko galde-erregutakoa dalako?

**Idazkariak:** Nun?

**Gorka Alkateak:** Aurreko aktan

**Idazkariak:** Ados.

**2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO IRAILAREN 23TIK URRIAREN 19RA (2021/241 - 2021/266).**

Alkatetzak 2021eko irailaren 23tik urriaren 19ra bitartean (2021/241-2021/266) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

**3.- TOLOSAKO HILTEGI MANKOMUNATUKO 2021EKO EKITALDIKO EKARPENA ORDAINTZEA.**

Tolosako Hiltegiko mankomunitateak 2021eko martxoaren 23an egindako bileran, udalen urteko ekarpena onartu dute. 2021. ekitaldian Irurako Udalaren ekarpena 1.358 eurokoa izango da. Hori ikusita, udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

1.º- Aipatu den ekarpena onartu eta ordaintzea.

**BOZKETA.- Aho batez onartu da**

**4.- 2021-2022 IKASTURTEKO 2 URTEKO GELAKO DIRULAGUNTZA EMATEKO IRURAKO IKASTOLAREKIN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Ondorengoa da hitzarmenaren zirriborroa:

"Iuran, 2021eko urriaren 27an

**BILDURIK:**

Alde batetik, GORKA MURUA MACUSO Irurako Alkate-Lehendakari Jn.-a Irurako Udalaren Osoko Bilkurak 2020ko azaroaren 24an hartutako erabakiz, ekintza hontan Udalaren izen eta ordezkartzapean aritzeko egokiro baimendua izan dena eta nik lagunduta Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin, Irurako Udalaren idazkari- kontuhartzailea fedea emateko legearen arabera.

Bestetik, N.A.N. 44.152.754E zenbakia duen, IMANOL AGUIRRE PEÑA Jn., Irurako Ikastolako Lehendakaria, Ikastola honen izen eta ordezkartzapean, 2020ko abendaren 16an eginiko batzar orokorraren baitan .

Biak ekintza hau burutzeko ahalmen osoa onartzen dute.

#### **AURREKARIAK:**

**Lehena.-** Badira urte batzuk Irurako Ikastolak 2 urteko haurren eskolaratzeari ekiten diola. Aurtengo ikaskurtean, 2021-2022, ume-kopurua 13koa izango denez, gela BAT izango ditu.

Guzti horregatik, ezinezkoa da Irurako Ikastolak dituen berezko baliabideekin bakarrik maila hau finantziaztea. Udal honek bestalde, zerbitzu hori mantentzeko finantziazioan laguntzea egokitzat jotzen du.

**Bigarrena.-** Honoko hitzarmen hau, Irurako Udalak, 2021ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuraren batzarraldian onartu zuen.

Hori dela eta, bi aldeek, honoko Hitzarmen hau onartzea erabakitzen dute, baina ondorengo klausulekin:

**LEHENA.-** Irurako Ikastolak, 2021-2022 ikasturtean, hala eskatzen duten 2 urte dituzten eta Irurako Udalerrri hontan bizi diren haurrak eskolaratzeko konpromezua hartzen du, horretarako dagokion irakaslegoa kontratatu eta beharrezkoak diren gainontzeko ekintza-bideak burutuko dituelarik.

**BIGARRENA.-** Udal honek zerbitzua finantziazten lagunduko du, irakaslearen lanak 2021-2022 ikasturtean zehar eta goizez bakarrik eragindako kostuaren %50 estaliko duen dirulaguntza emango duelarik, gehienez 3.606 € Irakaslearen arduraldia luzatzea erabaki ezker, Irurako Ikastolaren kontura izango da bakarrik.

**HIRUGARRENA.-** Laguntza, ondorengo eran emango da:

- Hitzarmena sinatzerakoan, Irurako Udalak 1.803 €tako dirutza ordainduko dio Irurako Ikastolari.

- Gainerakoa, 2021 ikasturteko ekainaren 30a baino lehenago ordainduko dio, baina, ikasturte osoari dagozkion irakaslearen nominak eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-agiriak aurkeztutakoan.

**LAUGARRENA.-** Dena dela era, Zerbitzuaren erantzunkizuna, bere arlo guztietan (lan arloan, G.S., zibila, administratiboa e.a.) Irurako Ikastolak izango du.

**BOSTGARRENA.-** Irurako Ikastolak ez badu Hitzarmena betetzen, aurreikusitako laguntza indargabetzea erakarriko du eta badagokio, kontutan harturik zertan ez den betetzen eta Hitzarmen honen xedea, Udalari guztia edo zati bat itzuli beharko dio.

Eta adostasunaren adierazgarri bi aldeek sinatzen dute ale bikoitzean eta ondorio bakarrerako igortzen den agiri hau, aleetako bat Irurako Ikastolari ematen zaiolarik, bestea, Udal Korporazio honek jasoz, guztiaren berri nik, Idazkariak fede ematen dudalarik adierazitako data eta lekuan.

**ALKATE-LEHENDAKARIA**

**IRURAKO IKASTOLATIK**

**IDAZKARIA”**

**Ana Leunda And.:** “Barkatu, guk hemen hitzarmenean Mikelen izena jartzen du

**Idazkaria:** Zirriborroa da.

**Ana Leunda And.:** “Ia baino...”

**Idazkaria:** Ados

**BOZKETA.- Aho batez onartu da**

#### **5.- KONTUHARTZAILEAEN TXOSTENAK:**

**1. 2021. URTEKO 3 HIRUHILABETEKO BERANKORTASUN TXOSTENAREN BERRI EMAN.**

**2. 2021. 3 HIRUHILABETEKO URTEKO EXEKUZIO TXOSTENAREN BERI EMAN.**

**3. 2021 KAPITULU ETA PARTIDA BAKOITZAREN AURREKONTU DIRU-SARREREN ETA GASTUEN EGOERA.**

**4. 2021. ALT XORTEGIAREN EGOERA.**

**Idazkaria:** Hemen pasa dizkizuet 4 txosten. 1. Puntuan 2. hiruhilabetekoa jartzen du baina 3nari dagokio, akatsa dago hor.

Batik bat, berankortasunaren txostena eta exekuzio arauak aldekoak direla eta araua betetzten dala beste behin ere 30 eguneko ordaintzeko batazbestekoa denean Irurako Udalaren kasuan 1.8 egun dala.

Urtea aurrera dijoa, aurrekontua ia osotasunean bete dugu, baina ondo goaz.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

**6.- MOZIOA. EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTA: PROPOSAMENA ENERGIA HORNIDURAREN PREZIOEN GORAKADAREN AURREAN HARTZEKO.**

Alkateak, hartu du hitza eta jarraian dagoen idatzia irakurri du.

### **“MOZIO proposamena Energia horniduraren prezioen gorakadaren aurrean hartzeko neurrien inguruan.**

Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

#### **ZIOA**

Argindarraren prezioa maximo historikoetan; fakturak igotzen; enpresa elektrikoak aberasten, herritarrak pobretzen eta Espainiako Gobernua hori baimentzen ari da. Hori da, hain zuzen ere, herritarren aurka egiten ari den iruzur handiaren laburpena. Iruzur horrek ondorio larriak izan ditu familietan, enpresa txiki eta ertainetan edo denda txikietan.

Egoera hori, besteak beste, enpresa publikoen privatizazioaren, salmentaren eta desgitearen ondorioz etorri da; izan ere, horrek sistema desarautzea eta "merkatuaren" esku uztea ekarri du. Administrazio Kontseiluetatik kontrolatzen eta manipulatzuten duten merkatua, helburu bakar bat partekatuz: energia bezalako funtsezko ondasun baten kontura aberastea, non enpresa handiek urtean mila milioi euroko irabaziak metatzen dituzten, kontsumitzaileei dirua lapurtzen eta ekoizleei lurraldeak ebazten dizkieten bitartean, ondorio sozial eta klimatiko oso larriak eraginez.

Egoera horri aurre egiteko neurri koiunturalak eta adabakiak besterik ez dira hartu. Eta enpresa handien onurei eragingo dien neurri bakarra hartu duenean, enpresa xantaia egin eta mehatxura jo dute. Eliteen eta gehiengo sozial eta herrikoien arteko pulsu baten aurrean gaude, finean.

Egoera hau garesti ateratzen zaigu. Bada garaia burujabetza energetikorantz aurrera egin dezagun, ezarritako oligopolioa apurtuko duten sistema propioak izan ditzagun, sistema bidezkoak publikotik eraikitzeko eta argindarra errespetatzeko, oinarritzko ondasun eta eskubide gisa.

Gure eskumen propioetatik, tokiko erakundeetatik ere, urratsak eman ditzakegu norabide horretan, herritarren interesak babesteko. Horregatik,

## **EBAZPEN PROPOSAMENA**

1. Irurako Udaleko Osoko Bilkurak Espainiar estatuko enpresa elektrikoak argindarraren prezioarekin egiten ari diren iruzur larria salatzen dute.

2. Irurako Udaleko Osoko Bilkurak Estatuko eta Europako instituzioei eskatzen die, behar beste neurri har ditzaten elektrizitate ekoizleek bidezko ordainsaria soilik jasotzen dutela bermatzeko. 2019/44 Europar Zuzentarauak adierazten duena burutuz, kontsumitzaileentzat energia-prezio eta -kostu eskuragarriak eta gardenak bermatzeko.

3. Irurako Udaleko Osoko Bilkurak Jaurlaritzari eskatzen dio:

3.1. Autokontsumoa eta komunitate energetikoak sustatzeko diru partidak gutxienez bikoiztu ditzala 2022. urteari begira.

3.2. Energiaren Euskal Erakundearen bitartez elektrizitatearen merkaturatzaile publiko bat sortzeko bideragarritasun-azterketa egin dezala.

3.3. Gizarte Larrialdietarako Laguntzetara zuzendutako ordainketa-kreditua handitu dezala, *“elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduraren ondoriozko energia-gastuekin”* erlazionatutako laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituen eskaerarik baztertu ez dadin.

3.4. Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan, *“elektrizitatearen, gasaren edo etxean erabiltzeko bestelako erregaien horniduraren ondoriozko energia-gastuetarako”* eman daitezkeen diru-kantitateak handitu ditzala, eta gutxieneko zenbatekoak ezar ditzala, indarrean dauden horniduren prezioarekin bat egon dadin.

Iruran, 2021ko Urriaren 20an”

**Ana Leunda And.** Mozio honetan planteatzen diren neurriak ez dira konkretuak: Europa eta Estatua dira ahal dutenak zerbait egin eta hauei esaten zaie behar diren neurriak hartzeko. Gero autokontsumoa, energiaren euskal erakundea sortu, horiek epe luzeko neurriak izan ditzake baina orain ez daukate eragina.

EAJ-PNVk esaten du: Gai honetan aktiboa izan behar da, ez biktimista. Baita ere kontuan hartu behar da ze eragin duen igoera horrek enpresatan, ez bakarrik haundietan baita ere txikietan. Eusko Jaurlaritzak eskatze zuen extrakosteak Estaduak asumitu ditzala.

**BOZKETA.- ALDE: 5 bozka, EH Bilduko zinegotziek. AURKA: 4 EAJko zinegotziek.**

## **7.- MOZIOA. MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALAREN ESKAKIZUNEZ EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: “JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA”**

Gorka Murua Alkateak: EH Bilduk baino nik neuk aurkeztu nuen Eusko Jaurlaritzatik iritsitako eskaerari bide emanez. Guk bozketara jo baina lehenago esan nahi dugu ados gaudela bertan idatzitakoarekin baina iruditzen zaigula beste konpromiso batzuk falta ditula idatzi horrek eta absentzioara joko dugula.

Ondoren bozketara jo dute

Jarraian doa Mozioa.

### **“JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA”**

Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne-zuzenbidean eta Europako zuzenbidean. Dimentsio arauemailea dauka. Etorkinek, asilo-eskatzaielak, Bidaiderik Gabeko Adingabe eta Gazte Atzerritarrek, iragaitzako migratzaileek edo zaugarritasun-egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebehar horiek bermatu egin behar dira.

Etika demokratikoko dimentsioa ere badu; izan ere, definitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizatorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonekiko erreakzio indibidual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo bakoitzak ahal duena egiten du, edo ondare komuna partekatzeko aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da *besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna*. Migrazioari dagokienez, jaso beharko genukeena eskaintzea da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.

Dimentsio arauemaileaz eta etikoaz gain, migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak aurrerabidearen alderdia ere jasotzen du, herrialderik aberatsenak migrazio fluxuak eta kultura aniztasuna modu egokian integratzen jakin izan dutenak dira.

Hala ere, migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen. Faltsutasunez, arrazismoz eta populismoz zamatutako aurreiritziek errendimendu alderdikoia lortu nahi dute, beldurraren bitartez. Horren ondorioetako bat da Europako eredia eta balioak zalantzan jartzen direla, ustekabean. Sintoma kezagarriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitortpenak atzera egiten du; gorroto diskurtsoak; adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da; eta ezin da migrazio-politika erkiderik eraiki.

Orain arte, Euskadik modu bateratu eta solidarioan erantzun izan die migrazioaren erronkak dituen agerpenei. Alabaina, populismo xenofoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa dauka. Migrazioarako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztzopoen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.

Bere helburuek proiektio etiko, prebentibo eta proaktiboa dute. Itun honen helburu etikoa erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaileen beharritan dagokienez. Helburu prebentiboa, berriz, zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiapean sortutako populismoen asmoak ezerezean uzteko. Eta helburu pragmatikoa da migrazioaren erronkari gure gizartearen hazkunde- eta aurrerabide-prozesuaren parte gisa heltzea.



**ABIAPUNTUAK.** Migrazioarako Euskal Itun Sozial hau sinatzen dugun pertsona, entitate eta erakundeek ondorengo abiapuntu hauek partekatzen ditugu.

**A. Premisa politikoa:** pluraltasuna. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorri euskal gizarte defindatzen dugu, kulturarteko pluraltasunaren balioekin konprometitutakoa eta herritartasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

**B. Premisa etikoa:** elkartasuna. Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna, diskriminazio eza eta etorkinen zein bertokoen eskubide eta obligazioak parekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onartzen dugu, konpromiso partekatu gisa.

**C. Premisa pragmatikoa:** beharrezkoa. Euskal gizarteak, familien babeserako politikez gain, immigrazioa behar du, lanaren eta demografiaren inguruko beharrezko erantzun ahal izateko. Euskadiren ondorengo hamarkadetako hazkunderari dagokionez, immigrazioa onerako izango da, eta guk aukera gisa helduko dioguz gai horri.

**ZEHARKAKO AUKERAK.** Itun hau sinatzen dugunok geure egiten ditugu, gure gaitasun eta eskumenen neurrian, zeharkako aukera hauek:

**I. Bizikidetzak.** Harrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere. Arbuia egiten ditugu beste kultura edo jatorrietako pertsonen aurkako aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako diskurtso estigmatizatzaileak.

**II. Giza Eskubiak.** Oinarritzko eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltzea sustatzen dugu, nazionalitatea edozein dela ere, tratu eta aukera berdintasunaren printzipioan oinarrituta, eta diskriminazio mota ororen aurrean.

**III. Zehakakotasuna.** Euskal administrazioen sektore-politiketan (enplegua, kultura, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, segurtasuna....) migrazioak dakarren kultura-aniztasunaren begirada txertatzea.

**IV. Kohesioa.** Irnatasunez babesten dugu hezkuntzaren, osasunaren edota oinarritzko prestazio sozialen unibertsaltasuna, bai eta enplegurako eta etxebizitzarako trebakuntza eta integrazioa jasotzeko ildoak mantentzea ere, eskubideen eta betebeharren berdintasun-esparruan.

**V. Hezkuntza.** Heziketa-espazio inklusiboen eraketa sustatzen dugu, migrazioarako eta bizikidetzarako balio estrategiko gisa. Errealitate desberdinak partekatzea, ezagutzea eta estimatzea pedagogia erabakigarria da gure ikasleen gizarteratze-prozesuan.

**VI. Tokiko esparrua.** Tokiko esparruaren garrantzia nabarmentzen dugu, eguneroko integrazio efektiborako agertoki estrategiko gisa. Bizikidetzak hobetzeko eta kohesio soziala areagotzeko lanean, udal ekintzak lehenetsutako balioa dauka, eta jardun hori babestu eta sustatu beharra dago.

**VII. Berdintasuna.** Genero-berdintasunarekiko konpromisoa partekatzen dugu, gure bizikidetzak eraikitzeko oinarritzko eta funtsezko printzipioa den aldetik; era berean, maila unibertsalean hedatzeko duen bokazioa ere partekatzen dugu, kultura eta erlijio guztiak kontuan hartuta. Konpromiso hori migrazio-politiketan eta gizarte babeseko politiketan genero ikuspegia modu eraginkorrean sartzean gauzatzen da.

**VIII. Hizkuntzak.** Gizarte hartzaileko hizkuntzak ikastearen alde egiten dugu, migratzaileen integrazioarako eta egokitzapenerako funtsezko faktore gisa. Beharrezkotzat jotzen dugu elkarte-ehunaren zeregina indartzea, elkarrizketa eta lankidetzak iraunkorreko mekanismoak ezarriz, migratzaileen erakundeek harreraren eta integrazioan duten zeregina sustatuz. Beraz, horretarako behar diren bitartekoak ahalbidetu behar dira.

**IX. Lankidetzak.** Maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren lehentasuna sustatzen dugu. Arlo honetan, beste ezein arlotan baino beharrezkoagoa da lankidetzak. Elkartzen gaituena bateratzea, bereizten gaituenari aurre eginez.

**KONPROMISO ZEHATZAK.** Aurreko guztiaz, erabateko babesa ematen diogu konpromiso zehatz hauen garapenari, dagozkien eskumen-esparruetan:

- 1. Erantzunkidetasuna.** Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea, EB osoan erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko. Horretarako, lankidetzaren leialdean aritu behar da estatuko eta Europako erakundeekin, eta eskatzen eta eskaintzen den konpromisoa islatzen duten proposamenak garatu behar dira.
- 2. Irmotasuna.** Batasun sozial eta politikoari eustea; modu horretan, mezu xenofoboak erabiliz abantaila politiko edo elektorala lortu nahi den guztietan, gehiengo demokratikoaren pisua nabarmenduko da.
- 3. Immigrazio erregularizatua.** Immigrazio erregularizatuaren aukerak areagotuko dituzten ildoak sustatzea, kontuan hartuta jatorrizko herrialdeetako errealitateak, migratzaileen migrazio-proiektuak, eta erronka demografikoak European planteatzen dituen beharrezan.
- 4. Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak.** Nazioarteko babes-eskatzaileen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan hobetzeko ekintzak garatzea, European, estatuan eta Euskadin.
- 5. Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileak.** Behar diren baliabideak eskaintzea zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileei erantzun humanitario egokia emateko, arreta berezia jarriz emakumeengan, adingabeengan eta giza eskubideen urraketan biktimengan.
- 6. Erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak.** Behar diren baliabideak artikulatzea, iristen diren iragaitzak migratzaileei edo erregularizatutako dokumentaziorik gabekoei erantzun solidario eta humanitarioa eskaintzeko, modu horretan autonomia-prozesuen alde egiteko.
- 7. Bidaidetik Gabeko Adingabe Atzerritarrak (BGAA) eta Bidaidetik Gabeko Gazte Atzerritarrak (BGGA).** Behar diren baliabideak edukitzea, legezko betebeharrak, adingabearen interes gorenaren printzipioaren betearazpenari eta gazteak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuari erantzun partekatu, bidezko eta egokia eskaintzeko.
- 8. Esku-hartze humanitarioa.** Gure gaitasun instituzionalen neurrian, dei humanitarioei erantzutea, bai erakundeek egindakoei, bai bertatik bertara (Mediterraneo itsasoan, jatorrizko herrialdeetan edo iragaitzan) aritzen diren nazioarteko zein tokiko GKE-ek egindakoei.
- 9. Prebentziozko esku-hartzea.** Lankidetzaren proiektuak babestea edo garatzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako pobrezia, bidegabekeriaren eta desberdintasunen zergatiak eraldatzeko, eta herrialde horietako giza kapitala eta indarguneak sendotzeko.
- 10. Bizikidetzaren kultura.** Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkartasunean, erantzunkidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta, eta edozein arrazismo edota bazterketa arbuiauta.

**BOZKETA.- ALDE: 4 EAJko zinegotziek, ABSTENTZIOA: 5 EH Bilduko zinegotziek.**

## **8.- MOZIOA. EH BILDU TALDEAK AURKEZTUTA: “JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA” MOZIOARI GEHITUTAKO PUNTUEKIN.**

Alkateak, hartu du hitza eta jarraian dagoen idatzia irakurri du.

### **“IRURAKO EHBILDUREN MOZIOA, JAURLARITZAREN “JASO NAHIKO GENUKEENA ESKAINTZEA” MOZIOARI GEHITUTAKO PUNTUEKIN.**

Eusko Jaurlaritzatik Migrazioaren Euskal Itun Sozialaren inguruko mozio proposamen bat iritsi berri da Irurako udalera, urriko plenoan eztabaida dadin. Gure ustez, dokumentu horrek jasotzen dituen puntuak aurrera eramateko, beharrezkoak dira gaurkoan proposatzen ditugun konpromiso zehatz batzuk gehitzea.

Horrela, Eusko Jaurlaritzari zuzendutako eskaera hauek gehituko dizkiogu **“Jaso nahiko genukeena eskaintzea”** mozio proposamenari:

1. Politika migratorioak garatzeko erakunde arteko mahaia aktibatzea.
2. Itun honetan jasotzen diren asmoak konpromisoetan bilakatu eta



erakundeen artean programak adostea.

3. Itunak jasotzen duena garatzeko baliabideak ezartzea.

Iruran, 2021ko urriaren 21ean  
Irurako EHBILDU “

**Ana Leunda And.** Orain, aurreko gaian, onartu degu Migraziorako euskal itun soziala “Jaso nahiko genukeena eskaintzea”, Eusko Jaurlaritzak proposatuta. Gaia landu zenean, alderdi politikok bere ekarpenak egiteko aukera eta epea eduki zuten. Eudelek ere bere oniritzia eman du, hau da bertan gauden alderdien baiezkoa. Horregatik ez diogu logikarik ikusten mozio honi, bere garaian egin beharreko ekarpenak direlako.

**Gorka Murua Alkateak:** Guk kasu hontan Irurako udaleko Eh bilduk egindako ekarpen hoiak, gu ados gaude lehen esan bezala beste testuakin eta zerbait, puntu batzuk falta dituen gure ustez gehitzen dizkiogu eta hori da bozketara joango den mozioa.

**BOZKETA.- ALDE: 5 bozka EH Bildu zinegotziek, AURKA: 4 EAJko zinegotziek.**

## **9.- GALDE-ERREGUAK.**

**Gorka Murua Alkateak:** Dekretuetan zerbait aipatu nahiko nuke, dekretu baten ikusiko zenuten gazteri sailean lanean zebilen langile batek utzi egin duela bere postua Marina Etxarri, lehenbizi eskertu nahi diot, egon dan garai horretan egindako lanagatikan eta bestea aipatzea ba bueno udalekutako egin zan lan-poltsatikan tira dela eta hortikan atera dela langile berria Naroa Gorostidi, aipamen hori egitea.  
Galderarik baduzue..

**Ana Leunda And.** Guk ez daukau ezer

**Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:14an eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**